## LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

### Zk-1867

75/1998 DEKRETUA, apirilaren 21ekoa, «industri aurriak» eraisteko proiektuak idazteko eta/edo burutzeko laguntzak arautzen dituena.

Industri aurriek arazo gogorrak sortzen dituzte Euskal Autonomi Erkidegoan. Agortutako meategiek eta birmoldaketa prozesu bortitzak eta inbertsiorik ezak jotako sektoreetako industri instalazioek ingurugiroaren aldaketa ekarri dute eskualde horietara. Industri instalazio zaharkituak eta aurrituak ikus daitezke. Inguru horietako irudia sano andeatuta agertzen da gure begietara eta, ondorioz, dinamika berriak sortzeko orduan eragozpen handiak agertzen dira eta azalera horiek atzera ere bereoneratzeko edo eratzeko beharra dakar.

Sail honek sustatutako lurralde-antolamendurako baliabideak bat datoz lurralde antolaketari buruz erabili beharreko oinarrizko elementuetako bat, Euskal Autonomi Erkidegoko hainbat eta hainbat lurraldek behar duten bereoneratzea dela adieraztean; sarri eraitsi egin behar izaten dira.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko industri aurrien zerrendak egin ondoren jakin denez, industri aurrien arazoa larria da Euskal Autonomi Erkidegoan. Bestalde, lurralde antolamendurako dauden tresna ezberdinak bat etorri dira honako hau agerian jarri dutenean: industri aurrien eraginpeko zabalera handiko lurraldeak bereoneratzea da, besteak beste, lurraldea antolatzerakoan nabarmendu beharreko elementu bat. Arrazoi horiengatik hain zuzen ere, Jaurlaritzaren Batzordeak, 162/1993 Dekretua onartu zuen ekainaren 1ean, «industri aurriak» eraisteko proiektuak idazteko eta/edo burutzeko laguntzak arautzen dituena hain zuzen ere. Ondoren, izen bera zuen ekainaren 20ko 314/1995 Dekretua eta 1995eko Dekretuari aldaketa puntual bat egin zion otsailaren 25eko 41/1997 Dekretua ere eman zituen, helburu berari eusteko.

Dekretu hau, aurrekoak bezalaxe, arazo horri aurre egiteko jarduketa-esparru sistematiko lez jartzen da; horren bidez, aurri egoeran dauden industri-eraikinak lurreratzeko ekintzak diruz laguntzea arautzen da.

Eraikin horiek ingurua baldartu egiten dutenez, horien eragina baretzea da jarduketa hauen helburua; eta ez planeamenduko zehaztapenak gauzatzea, egoitza-, industria- eta planeamendu-eremu berriak eskainiz. Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa jabeturik dago egoera horretaz eta lurreratzeko as-

## DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

### N°-1867

DECRETO 75/1998, de 21 de abril, por el que se regulan las ayudas para la redacción y/o ejecución de los proyectos de demolición de «ruinas industriales».

La Comunidad Autónoma del País Vasco constituye un territorio en el que la problemática de ruinas industriales posee una gran entidad: superficies de yacimientos minerales agotados, instalaciones industriales en sectores sometidos a duros procesos de reconversión y de falta de inversión han provocado la aparición de una gran superficie de terrenos alterados de su medio natural o con instalaciones industriales obsoletas y ruinosas que dan lugar a una imagen de degradación que condiciona fuertemente la creación de nuevas dinámicas y obliga a recuperar u ordenar nuevamente tales superficies.

Los instrumentos de ordenación territorial promovidos por este Departamento coinciden en que uno de los aspectos fundamentales de actuación en materia de ordenación territorial es la regeneración territorial que precisan grandes superficies de nuestra Comunidad con actuaciones, en muchos casos, de demolición.

Precisamente, la gran entidad de la problemática de las ruinas industriales en la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuyo dimensionamiento se pudo conocer tras la realización de los Inventarios de ruinas industriales de Álava, Gipuzkoa y Bizkaia, y la coincidencia de los diferentes instrumentos de ordenación territorial en que uno de los aspectos fundamentales en materia de ordenación del territorio es la regeneración territorial de grandes superficies afectadas por la referida problemática, motivó la aprobación por el Consejo de Gobierno del Decreto 162/1993, de 1 de junio, por el que se regulan las ayudas para la redacción y/o ejecución de los proyectos de demolición de «ruinas industriales». Así como el posterior Decreto 314/1995 de 20 de junio del mismo nombre y el Decreto 41/1997, de 25 de febrero por el que se realizaba una modificación puntual del Decreto del año 1995.

El presente Decreto al igual que los anteriores se plantea como marco de actuación sistemática para abordar la problemática descrita, regulándose a través del mismo la concesión de ayudas económicas para la demolición de instalaciones ruinosas.

La finalidad de estas actuaciones no es la de ejecutar las determinaciones del planeamiento, planteando nuevas áreas residenciales, industriales, de equipamientos, etc. sino, únicamente, la de anular el impacto negativo que tales edificaciones provocan en el territorio. La Administración de la Comunidad Autó-

moak gauzatu egin nahi ditu benetan, planeamendua burutzen denentz kontutan hartzeke eta aurri-egoeran dauden instalazioen jabeentzat pizgarriak izan daitezkeen dirubideak sortuz eta arautuz.

Dekretu honetan jasotzen denetik, udalek jardun ahal izango dute baldin eta eurek emandako burutze aginduen arabera subsidiarioki burutu behar badituzte aurri-egoeran dauden eraikin eta instalazioak lurreratzeko obrak.

Aurriak lurreratzeko obrak burutzeko kosteari dagokion zenbatekoa Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak aurreratzean datza egitarau hau. Zenbateko hori hirigintza gastu lez jasoko da jarduketa-eremuaren bihar-etziko hirigintza-garapena jasotzen duen agirian. Diru-kopurua, hirigintza-garapena eta eremuaren hirigintza egin ondoren, Eusko Jaurlaritzari itzuliko zaizkio; ez garapenik ez eta hirigintzarik ere ez bada gertatzen, 10 urteko epean itzuli beharko da kopuru hori.

Honako Dekretu honek, gainera, helburu bikoitza du:

Alde batetik, gai honetako araubideak, Euskal Herriko Ogasuna Ordenatzeko Printzipioen Legeari onespena ematen dion eta duela gutxi onetsi den azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu legegileari egokitzea eta orain arte indarrean egon diren arau guztiak testu bakarrean bateratzea.

Bestetik, dokumentazioa aurkezteko bete behar denaren inguruan gauzak argitzeko aldaketa batzuk sartzea, hala nola, programa gestionatzen azken urteotan bildutako esperientziaren ondorioz, dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptuak zehaztea. Halere, ez da beste aldaketarik egingo, programak behar bezala funtzionatzen duela frogatu den heinean.

Horiek horrela, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1998ko apirilaren 21ean egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Laguntzen xedea eta izaera.

1.– «Industri aurriak» lurreratzeko proiektuak idazteko eta/edo burutzeko laguntzak arautzea da Dekretu honen xedea. Laguntza horiek epe luzerako eta interesik gabeko maileguak izango dira eta 15. atalean ezarritako baldintzetan itzuli beharko dira.

2.– Salbuespen moduan honako hauek izan daitezke dirulaguntza hauen gai: lurraldean eragin ezkorra duten eraikin edo instalazioak, utzikeria, zaharkitze eta erabilpen eskasa dutelako eraistea komeni denean.

noma del País Vasco, consciente de este estado de cosas, pretende actuar sobre la realización material de los Proyectos de demolición, independientemente de la ejecución del planeamiento, asignando los oportunos medios económicos que puedan servir como mecanismo incentivador para los propietarios de las instalaciones en estado de ruina.

Este Decreto prevé, además, que los Ayuntamientos puedan actuar en el supuesto de que tengan que ejecutar, con carácter subsidiario, en virtud de órdenes de ejecución dictadas por los mismos, obras de derribo de edificios e instalaciones ruinosas.

Este programa consiste en que el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente anticipa el importe correspondiente al costo de ejecución de las obras de demolición de las ruinas, figurando esa cantidad como un coste de urbanización en el documento de planeamiento que contemple el futuro desarrollo urbanístico del ámbito de actuación, revertiendo al Gobierno Vasco la cuantía económica tras el desarrollo urbanístico y la ejecución de la urbanización del área o en el plazo máximo de 10 años en el supuesto de no haberse producido éste.

El presente Decreto tiene, además, un doble objetivo:

Por una parte adaptar la regulación de esta materia al recientemente aprobado Decreto legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y refundir en un único texto la normativa hasta ahora en vigor.

Por otro lado, introducir algunas modificaciones aclarativas respecto a la cumplimentación de la documentación, así como a la concreción de los conceptos subvencionados, fruto de la experiencia de la gestión del programa en los últimos años. Sin embargo, no se producen alteraciones al haberse demostrado un correcto funcionamiento del programa.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 21 de abril de 1998.

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto y naturaleza de las ayudas.

1.– Es objeto del presente Decreto regular las ayudas para la redacción y/o ejecución de los proyectos de demolición de «ruinas industriales». Dichas ayudas consisten en prestamos a largo plazo y sin interés a devolver en las condiciones establecidas en el artículo 15.

2.– Excepcionalmente podrán ser objeto de estas ayudas, aquellos edificios e instalaciones cuyo estado de abandono, obsolescencia e infrautilización provoca un impacto territorial negativo que aconseja su demolición.

3.– atala honetan xedatutakoaren ondorioetarako, industri aurritzat hartu eta laguntzak eskuratzeko kasu lez, honako instalazio hauek joko dira: lurrari buruzko indarreko legeriaren arabera, udalak euren aurri-egoera deklaratu dueneko eraikin eta instalazioak, hala nola deklarazio horrek hartu ez baina utzikeria, zaharkitze edo erabilpen eskaseko egoeran dauden instalazioak, eta azken ezaugarri horiek, laguntza hauek emateko Epaimahai Kalifikatzaileak baloratu behar ditu.

4.– Dekretu honetan aurreikusitako laguntzak emateko aldizkako deialdiak Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren aginduz egingo dira eta aginduak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, deialdi horretarako ekonomikoa zein den adieraziz.

*2. atala.–* Onuradunak.

Dekretu honetan ezartzen diren baldintzak, betebeharrak eta prozedura kontutan izanik, honako hauek eskatu ahal izango dituzte laguntzak:

1.– Eraikin eta instalazioen titular erregistralak diren pertsona pribatuek, fisiko zein juridikoek.

2.– Udalek ere eskatu ahal izango dituzte laguntzak, bai titular lez edo ordezkatze-ejekuzioaren arabera jardunez, eta horretarako berariazko legerian ezarritako formaltasun eta eskakizunak bete behar dituzte.

3.– Foru Aldundiek edo beste edozein Administrazio Publikok, hala nola beren menpeko Ente edo Erakundeek, aurriaren jabe gisa jardunez.

Onuradunak itzulketa exigitzeko edo zehapena ezartzeko prozeduraren baten pean baldin badaude, laguntzaren emakida bera eta, hala badagokio, dirulaguntzak eta laguntzak onuradunei ordaintzea baldintzaturik geratuko da, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere organismo autonomoek emandako izaera berdineko laguntza edo dirulaguntzen esparruan hasirik eta oraindik izapideak egiteko dagoen itzulketako edo zehapeneko prozedura amaitu bitartean.

*3. atala.–* Laguntza jaso dezaketen jarduerak.

1.– Eraispen-obren burutzapenaren barruan, ondoko jarduerak izango dira dirulaguntza jaso dezaketenak:

a) Proiektuaren idazketak, eraispen-obren Zuzendaritzak eta, halakorik balego, elkargo profesionalaren tasek eta bisatuak duten kostua.

b) Eraispen obren burutzapenaren kostua.

c) Udal-eskudunak emandako eraispen-obren baimenaren kostua.

3.– A los efectos de lo dispuesto en este artículo tendrán la consideración de ruinas y serán, por lo tanto, susceptibles de recibir ayuda aquellos edificios e instalaciones sobre los que el Ayuntamiento haya declarado su estado de ruina, de conformidad con lo previsto en la legislación del suelo vigente, así como aquellos sobre los que no exista tal declaración pero se hallen en estado de abandono, obsolescencia o infrautilización, extremos éstos que deberán ser valorados por el Tribunal Calificador de estas ayudas.

4.– Las convocatorias periódicas para la concesión de las ayudas previstas en este Decreto, revestirán la forma de Orden del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente y serán publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco indicándose la dotación económica para esa convocatoria.

*Artículo 2.–* Beneficiarios.

Las ayudas podrán ser solicitadas, con arreglo a las condiciones, requisitos y procedimiento que se establecen en el presente Decreto por:

1.– Personas privadas, tanto físicas como jurídicas, titulares registrales de los edificios e instalaciones.

2.– Los Ayuntamientos, en su calidad de titulares o actuando en virtud de ejecución subsidiaria, con las formalidades y requisitos establecidos en su legislación específica.

3.– Las Diputaciones Forales o cualquier otra Administración Pública, así como por los Entes u Organismos de ella dependientes actuando en su condición de propietarios de la ruina.

En el caso de que los beneficiarios/as se encuentren incursos en procedimientos de reintegro o sancionadores la concesión y, en su caso, el pago de las subvenciones y ayudas a los beneficiarios/as de éstas quedarán condicionadas a la terminación del procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de las ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

*Artículo 3.–* Actividades subvencionables.

1.– Dentro de la ejecución de las obras de demolición serán subvencionables las siguientes actividades:

a) El coste de redacción del Proyecto, Dirección de las obras de demolición y tasas de visado del colegio profesional si las hubiere.

b) El coste de la ejecución de las obras de demolición.

c) El coste de la licencia de obras de demolición concedida por el ayuntamiento competente.

d) Dirulaguntza ematen duen Administrazioak exigitutako kartelen ezarpena, publizitatea, argazki-dokumentazioa eta ikusentzunezkoa.

e) Eraispen-lanak modu egokian egin daitezen, dirulaguntza eman duen Administrazioak eska ditzakeen gainerako jarduera guztiak.

2.– Ezein kasutan ere, laguntzaren objektua ez da proiektuaren idazketa bakarrik izango.

3.– Dekretu honetan jasotako laguntzak eskuratuz gero, proiektuaren idazketa eta obren burutzapena bi eta lau hilabeteko epeetan egingo dira, 12. atalean aurreikusitako Hitzarmena izenpetzen denetik kontatzen hasita. Edozein kasutan ere, obrak burutzeko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, aipatu hitzarmena izenpetzen denetik kontatzen hasita.

4.– Epe hauek Lurralde Antolamendurako zuzendariaren ebazpenez luzatu ahal izango dira. Horretarako, laguntzaren onuradunak, hasieran ezarritako epeak amaitu baino lehen aurkeztu beharko du luzamendua eskatzeko idazkia, atzerapena sortu duen arrazoia ezagutu duenetik hilabeteko epea baino lehen, atzerapenaren arrazoiak alegatuz eta zernolako iraupena izan dezakeen adieraziz.

Luzamendua onartzea ebazten bada, galdutako denboraren iraupen berdina izango du, non eta onuradunak epe laburragoa eskatzen ez duen.

*4. atala.–* Laguntzetarako eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Laguntza horiek eskatu ahal izateko, horretan arduraturik daudenek, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskabidea formalizatzeari buruzko idazkia.

b) Eskatzailearen nortasunari eta, beharko balitz, bere gain duen ordezkapenari buruzko egiaztagiria.

c) Jabego Erroldaren ziurtagiria, lur-jabegoaren, egon dagoen eraiketaren edo eraikinaren eta horien gain dauden kargen titularitatea erasota utziz. Eraistekoa den eraikina duela gutxi erosi edo eskuratutakoa bada, nahikoa izango da jabegoa eskatzaileari eskualdatu izanaren eskritura publikoaren kopia bat eta dagokion Jabego Erroldan aurkeztu izanaren idazpena aurkeztea.

d) Aurreproiektua edo Proiektua, lurreratze obren erabateko zenbatekoari buruzkoa; eta profesionalen alokairuen zenbatekoaren justifikazioa (Proiektua eta Obren Zuzendaritza barne). Gutxi gora-beherakotzat onartuko da eraispena gauzatzeko eskudun diren elkargo ofizialen tarifen arabera egindako kalkulua.

e) Inbentarioa eta industri esparruaren barruan biltegiratutako edo bazter utzitako materialen ezaugarriak (Aurreproiektuan edo Proiektuan barne hartu ahal izango da).

d) Los costes de colocación de carteles, publicidad, documentación fotográfica y audiovisual exigidos por la Administración subvencionadora.

e) Aquellas otras actividades que se pudiesen exigir por la Administración subvencionadora para la correcta finalización de los obras de demolición.

2.– En ningún caso será objeto de ayuda la redacción del proyecto exclusivamente.

3.– La redacción del Proyecto y la ejecución de las obras se realizarán en los plazos de dos y cuatro meses, respectivamente, contados a partir de la suscripción del Convenio previsto en el artículo 12. En cualquier caso, el plazo máximo para ejecutar las obras será de seis meses contados a partir de la suscripción del Convenio de referencia.

4.– Estos plazos podrán ser prorrogados mediante resolución del Director de Ordenación del Territorio. Para ello, el beneficiario de la ayuda deberá presentar, antes de la finalización de los plazos inicialmente establecidos, un escrito de solicitud de prórroga, en el plazo de un mes desde que se conozca la causa originaria del retraso, alegando las razones del retraso y señalando el tiempo probable de su duración.

En el supuesto de que se resuelva conceder la prórroga, ésta será igual al tiempo perdido, a no ser que el beneficiario de la ayuda pidiera otro menor.

*Artículo 4.–* Solicitud de las ayudas y documentación a cumplimentar.

1.– Para solicitar las ayudas indicadas, los interesados deberán presentar la siguiente documentación:

a) Escrito de formalización de la solicitud.

b) Documento acreditativo de la personalidad del solicitante y, en su caso, de la representación que ostenta.

c) Certificado del Registro de la Propiedad en el que se haga constar la titularidad del dominio del suelo y de la construcción o edificación existente, así como de los gravámenes que sobre los mismos consten. En el supuesto de que la adquisición de la propiedad objeto de derribo sea reciente bastará con copia de la escritura pública de transmisión de la propiedad a favor del solicitante y del asiento de presentación en el Registro de la Propiedad competente.

d) Anteproyecto o Proyecto, del que se desprenda el importe total de las obras de demolición y justificación de la cuantía de los honorarios profesionales (incluidos Proyecto y Dirección de Obra). Se admitirá como orientativo el cálculo de honorarios conforme a tarifas de los colegios profesionales competentes para llevar a cabo los derribos.

e) Inventario y caracterización de los materiales almacenados o abandonados en el recinto industrial (se podrá incluir en el Anteproyecto o Proyecto).

f) Zertarako diren edo, beharko balitz, materialak deuseztatzeko erabiliko diren bideak (Aurreproiektuan edo Proiektuan barne hartu ahal izango da).

g) Laguntzen diruzenbatekoak jasota egongo direneko agiria; laguntza horiek, helburu bera duten beste izaiki batzuei emandakoak edo horiei eskatutakoak izango dira, diruzenbatekoa adieraziz. Beste laguntzarik ez badago, horixe adieraziko da.

h) Laguntza hirurehun mila pezetatik gorakoa baldin bada, (Euskal Sektoreko Publikoan barne harturiko Ente edo Erakundeak salbu) dagokion Foru Ogasunaren ziurtapena aurkeztu beharko da, eskatzaileak zergen inguruko obligazioak beteta dituela kreditatuz.

2.– Udalek, eurek emandako burutze aginduen arabera, laguntzak eskatzen badituzte, izapidetutako aurri-deklarapenari buruzko espedientearen egiaztatutako kopia ere aurkeztu beharko dute, burutzapen subsidiarioa gauzatzeko erabakia barne.

*5. atala.–* Laguntzak gestionatzeko organoa.

Dekretu honetan aurreikusitako laguntzen gestioa Lurralde Antolamendurako Zuzendaritzari dagokio.

*6. atala.–* Aurkeztutako eskabidean izandako akatsak zuzentzea.

Lurralde Antolamendurako zuzendaritzak eskabideren batean akatsen bat edo datu okerren bat dagoela ikusten badu, eskatzaileari jakinaraziko dio, akatsa edo okerra zuzentzeko 10 eguneko epea emanez. Epe hori amaitu eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidea beste tramiterik gabe artxibatuko da.

*7. atala.–* Epaimahai Kalifikatzailea.

Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, Lurralde Antolamendurako zuzendariak eta Zuzendaritza horri atxikitako bi funtzionarik osatutako Epaimahai Kalifikatzailea eratuko da. Epaimahai horrek Lurralde Antolamendu eta Etxebizitzarako sailburuordeari igorriko dio dagokion ebazpen-proposamena.

*8. atala.–* Dirulaguntzen zenbatekoa.

1.– Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, dagokion unean egon dauden aurrekontu habilitazioen arabera, proiektua idaztearen eta/edo obrak burutzearen kostu garbiaren %100ari (balio erantsiaren gaineko zerga salbu) dagokion laguntza eman dezake.

2.– Lurralde Antolamendurako zuzendaritzak laguntzen zenbatekoa ezartzeko prozesuan erabiltzen duen irizpide orokorraren arabera, 3. ataleko atal guztien diru-munta osoa eraitsi beharreko eraikinaren m3 bakoitzeko 500 pezetakoa da, eraikin horren

f) Destino final, o en su caso método de eliminación del material resultante (se podrá incluir en el Anteproyecto o Proyecto).

g) Documento en el que se hagan constar las cuantías de las ayudas que, en su caso, hayan sido otorgadas o solicitadas a otros entes con la misma finalidad, con expresión de su importe. De no existir otras ayudas se hará constar esta circunstancia.

h) En el supuesto de que la cuantía de la ayuda supere las trescientas mil pesetas, los beneficiarios (con excepción de los Entes o Instituciones que pertenezcan al Sector Público Vasco) deberán presentarse el certificado de la Hacienda Foral competente relativo a la acreditación del cumplimiento de obligaciones tributarias.

2.– En el supuesto de que los Ayuntamientos soliciten las ayudas en virtud de ordenes de ejecución dictadas por los mismos, deberán presentar así mismo copia adverada del expediente de declaración de ruina tramitado, incluido el acuerdo de ejecución subsidiaria.

*Artículo 5.–* Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponde a la Dirección de Ordenación del Territorio la gestión de las ayudas previstas en el presente Decreto.

*Artículo 6.–* Subsanación de los defectos en la solicitud presentada.

Si la Dirección de Ordenación del Territorio advirtiera en la solicitud la existencia de algún defecto o inexactitud, lo comunicará al solicitante, concediéndole un plazo de 10 días para que proceda a su subsanación. Transcurrido dicho plazo sin haber procedido a la subsanación, la solicitud se archivará sin más trámite.

*Artículo 7.–* Tribunal Calificador.

Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá un Tribunal Calificador compuesto por el Director de Ordenación del Territorio y dos funcionarios adscritos a su Dirección. Dicho Tribunal elevará la oportuna propuesta de resolución al Viceconsejero de Ordenación del Territorio y Vivienda.

*Artículo 8.–* Cuantía de las subvenciones.

1.– El Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente podrá conceder, de conformidad con las habilitaciones presupuestarias existentes en cada momento, una ayuda equivalente al 100% del coste neto (impuesto de valor añadido excluido) de redacción del Proyecto y/o de la ejecución de las obras.

2.– El criterio general que utiliza la Dirección de Ordenación del Territorio en el proceso de establecer la cuantía de las ayudas es el de considerar que el montante total de todos los apartados del artículo 3 asciende a 500 pesetas m3 del edificio a derribar si la

egitura hormigoizkoa edo fabrikakoa baldin bada. Eraitsi beharreko eraikinaren egitura burdinazkoa izanez gero, adierazitako zenbateko hori egiturako txatarraren salmenta-balioaz murriztuko litzateke. Aipatutako Dekretua aplikatzeaz salbuetsita geratzen dira behar bezala justifikaturik kostu handiagoa dutela kreditatzen duten kasuak.

3.– Egon dagoen aurrekontu-habilitazioak ezinezkoa egiten badu aurreko lerroaldean ohartemandako laguntzarekiko ehunekoa ematea, aurkeztutako eskabideei emango zaien laguntzaren zenbatekoa mailakatu egingo da, hurrengo atalean ezarritako irizpideen arabera.

*9. atala.–* Laguntzak emateko lehentasuna sortzen duten zirkunstantziak.

Zortzigarren ataleko hirugarren paragrafoan aurreikusitako kasuan, laguntzak emateko lehentasuna sortzen duten zirkunstantziatzat hartuko dira ondoko hauek:

a) instalazioak lurraldeari dagokionez duen desegokitasuna eta eragin txarra (0 puntutik 20ra bitartean baloratuko da).

b) bihar-etzi izango duen hirigintza-garapenari begira, lurraldean duen kokapena (0 puntutik 30era bitartean baloratuko da).

c) hirigintza eta ingurugiro alorretako andeapenarazoek beriziki eragindako hiri-eremuetan edo inguruetan kokatuta dagoenentz, langabetu-tasa handiak dituzten industri birmoldaketaren ondoriozko egoerak direnean (0 puntutik 30era bitartean baloratuko da).

d) benetako eta agiango arrisku egoera, bai norbanakoen osasunari eta segurtasunari dagokienean zein inguruneari dagokionean (0 puntutik 20ra bitartean baloratuko da).

*10. atala.–* Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Honako laguntza hauen emakida beste edozein laguntzarekin bateratu ahal izango da, bestea fondo publikoetatik nahiz pribatuetatik jasotzen dela ere. Dena den, helburu berberaz lortutako laguntzen guztizko zenbatekoak guztizko kostua gainditzen badu, emandako laguntzaren zenbatekoa soberakoari dagokion kopuruan gutxituko da.

*11. atala.–* Ebazpena.

1.– Deialdi honetan aurreikustako dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena, Epaimahai Kalifikatzaileak igorritako proposamena ikusirik, Lurralde Antolamendurako eta Etxebizitzarako sailburuordeak emango du, eskabideak aurkezteko epea amaitu ondorengo bi hilabeteko epean. Ebazpen hori esleipendunei jakinaraziko zaie eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

estructura del edificio es de hormigón armado o fábrica. En el supuesto de que la estructura del edificio fuese metálica se produciría una reducción de la cuantía anteriormente señalada por el valor en venta de la chatarra de la estructura. Se exceptuarán de la aplicación del referido Decreto los casos en que, justificadamente, se acredite un costo superior.

3.– Si la habilitación presupuestaria existente no permitiera conceder el porcentaje de ayuda previsto en el párrafo anterior, se graduará el importe de la ayuda a conceder a las solicitudes presentadas, en función de los criterios establecidos en el artículo siguiente.

*Artículo 9.–* Circunstancias que otorgan prioridad para la concesión de ayudas.

En el supuesto previsto en el párrafo tercero del artículo octavo se considerarán circunstancias que otorgan prioridad para la concesión de las ayudas, las siguientes:

a) El impacto territorial que las instalaciones provocan (se valorará de 0 a 20 puntos).

b) Su ubicación estratégica en el territorio de cara a su futuro desarrollo urbanístico (se valorará de 0 a 30 puntos).

c) Su emplazamiento en áreas urbanas o periurbanas específicamente afectadas por problemáticas de degradación urbanística y ambiental, producto de situaciones derivadas de reconversiones industriales con elevadas tasas de desempleo (se valorará de 0 a 30 puntos).

d) Situación tanto de riesgo directo como potencial tanto respecto a la afección a la salud y seguridad de las personas como respecto al medio ambiente (se valorará de 0 a 20 puntos).

*Artículo 10.–* Compatibilidad con otras subvenciones.

La concesión de las presentes ayudas será compatible con la obtención de cualquier otra, ya provenga la misma de fondos públicos o privados. No obstante, en el caso de que el importe total de las ayudas obtenidas para un mismo fin sea superior a su coste total, se reducirá en la cantidad correspondiente al exceso el importe de la ayuda concedida.

*Artículo 11.–* Resolución.

1.– La Resolución de concesión o denegación de las subvenciones previstas en esta convocatoria será dictada, a la vista de la propuesta elevada por el Tribunal Calificador, por el Viceconsejero de Ordenación del Territorio y Vivienda en el plazo de dos meses, contados a partir de la finalización del plazo de presentación de solicitudes. Dicha Resolución será notificada a los adjudicatarios y publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 43.2.c) atalean ezarritakoaren arabera, epe hori amaitu eta behin, doakionari Ebazpenari buruzko inolako jakinarazpenik igorri ez bazaio, eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da.

3.– Ebazpenean espreski adieraziko dira xedea, zenbatekoa, ordaintzeko modua eta epeak eta onuradunak eskakizunak betetzen dituela justifikatzeko modua, aditzera emanez, gainera, ebazpen horren aurka tartejar daitezkeen bidezko errekurtsoak, zein organo administratibo edo judizialaren aurrean aurkeztu behar diren eta tartejartzeko epea zein den.

*12. atala.–* Hitzarmena izenpetzea.

1.– Aurreko atalean aipatutako ebazpena ematen den egunetik hasi eta hilabeteko epearen barruan, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak eta esleipendunek, aldeek berenganatzen dituzten konpromezu, eskubide, eginbehar, onartutako dirulaguntza eta eraispen-proiektuak jasoko direneko hitzarmena izenpetuko dute. Honako hauek aipatu beharko dira hitzarmen horretan gutxienez:

a) Eman den dirulaguntzaren zenbatekoa eta helburua.

b) Proiektua idazteko eta/edo eraispen-obrak egiteko epea, 3. atalean horretarako ezartzen denaren arabera.

c) Emandako dirulaguntza itzuliko dela ziurtatzeko behar adinako bermea, indarreko legerian ezarritako bermeetakoren batez baliatuz instrumentatuko delarik.

– Dirulaguntzaren zenbatekoa 30.000.000 PTA-tik gorakoa ez denean ez da bermea jartzerik eskatuko, ez eta dirulaguntzaren onuraduna Foru Aldundia, Udala edo edozein administrazio publiko edo horien menpeko izaiki edo erakundeak direnean ere.

– Salbuespen gisa, Eusko Jaurlaritzak, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren eta Ogasunekoaren proposamenez, emandako dirulaguntza itzultzeko bermearen jarri beharretik jare utzi ahal izango du kasu bakoitzean.

*13. atala.–* Laguntzaren ordainketa.

1.– Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak emandako dirulaguntzaren ordainketa onuradunek beren gain hartutako eta 3. atalean aurreikusitako gastuen justifikagirien originalak edo kopia konpultsatuak aurkezten dituztenetik aurrera egingo da hilabeteko epearen barruan.

2.– Ordainketa bi fasetan egin ahal izango da, bata eraispen-proiektua entregatutakoan eta bestea eraispen-obrak amaitutakoan.

2.– De conformidad con lo establecido en el art. 43.2.c) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, si una vez transcurrido dicho plazo no hubiera sido notificada al interesado Resolución alguna, la solicitud correspondiente se entenderá desestimada.

3.– En la Resolución se hará constar expresamente el objeto, importe, forma y plazos de pago, forma de justificación del cumplimiento de las obligaciones del beneficiario/a, expresando, además, los recursos que contra la misma procedan, órgano administrativo o judicial ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlos.

*Artículo 12.–* Suscripción de Convenio.

1.– En el plazo de un mes a contar desde la fecha de la resolución aludida en el artículo anterior, el Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente y los beneficiarios suscribirán un Convenio en el que se articularán los compromisos, derechos y obligaciones asumidas por las partes, en relación con las ayudas reconocidas y los proyectos de demolición, donde se harán constar, al menos, los siguientes extremos:

a) Cuantía y objeto de la ayuda concedida.

b) Plazo para la redacción del Proyecto y/o ejecución de las obras de demolición, de conformidad con lo previsto al efecto en el artículo 3.

c) Garantía suficiente de la devolución de la ayuda concedida, que se instrumentará a través de cualquiera de las garantías establecidas por la normativa vigente.

– No será exigible la constitución de garantía cuando el importe de la ayuda no exceda de 30.000.000 PTA, o cuando el beneficiario de la misma sea una Diputación Foral, Corporación o cualquier Administración Pública, los Entes u Organismos de ellas dependientes.

– Excepcionalmente, el Gobierno Vasco, a propuesta conjunta del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente y del de Hacienda y Administración Pública, podrá exonerar en cada caso concreto de la necesidad de constituir la garantía de la devolución de la ayuda concedida.

*Articulo 13.–* Pago de la ayuda.

1.– El pago de la ayuda concedida por el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente se realizará en el plazo de un mes contado a partir de la presentación, por parte de los beneficiarios de los originales o copias compulsadas de los justificantes de los gastos contraidos y previstos en el artículo 3.

2.– El pago se podrá realizar en dos fases una a la entrega del Proyecto de demolición y otra segunda a la finalización de las obras de derribo.

3.– Ordainketa-ebazpenak eman aurretik, proiektua eta, hala badagokio obren amaiera, onartutako Proiektuaren arabera egin direla kreditatuz Lurralde Antolamendurako Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek jaulkiko duten aldeko txostena ikusi beharko da.

*14. atala.–* Onuradunaren obligazioak.

Dekretu honetan araututako laguntzen onuradunek kasu guztietan bete beharko dituzte ondoko obligazioak:

a) Emandako laguntza onartzea. Zentzu honetan, dirulaguntza eman izana aditzera emanez igorritako jakinarazpena jasotzen duten egunetik hasi eta hamabost eguneko epean, pertsona/entitate onuradunek laguntza horri espreski eta idatziz uko egiten ez badiote, onartu dutela ulertuko da.

b) Dirulaguntza, emana izan den helbururako zehatz-mehatz erabiltzea.

c) Kontrol Ekonomikorako Bulegoari eta Kontu Publikoen Euskal Erakundeari, deialdi honen kargura jasotako dirulaguntzen inguruan, beren zeregina betez eskatzen duten informazioa ematea.

*15. atala.–* Laguntza edo interes gabeko maileguaren baldintzak.

1.– Laguntzen onuradunek gehienez ere sei hilabeteko epean itzuli beharko dute eman zaien dirukopurua, epe hori urbanizazio-proiektua onetsi denetik edo, horrelako proiekturik ezean, eraikitzeko obra-baimena lortu dutenetik kontatzen hasita. Urbanizazioa eta eraikuntza gauzatzen ez badira, gehienez 10 urteko epean itzuli beharko dute, epe hori Hitzarmena izenpetu denetik kontatzen hasita.

Aurreko paragrafoan aipaturiko itzulketa Euskal Herriko Diruzaintza Nagusian diru-sarrera eginez edo hirigintza-aprobetxamenduak lagatzearen bitartez egin ahal izango da.

2.– Bigarren kasua aukeratuz gero, laguntzen onuradunek jarduketaren esparru bereko aprobetxamenduen lagapena edo besteren batekoa egin ahal izango dute. Bigarren kasu honetarako, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak espreski eman beharko du baimena. Bi kasuetan ere, lagapen horren baldintzak arautuko dituen agiria formalizatuko da.

3.– Eraispenaren xede diren instalazioak kokaturik dauden esparruaren garapen-plangintza xehekatuak azterlan ekonomiko-finantzarioan bildu beharko du, esparruari egoz dakiokeen kostu gisa, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak emandako laguntzen zenbatekoa, eta kostu hori lurzatiketarako eta/edo urbanizaziorako Proiektuetara igorri beharko da.

3.– Las resoluciones de pago irán precedidas del informe favorable de los servicios técnicos de la Dirección de Ordenación del Territorio que acredite la realización del proyecto, en su caso, y la finalización de las obras, conforme al Proyecto aprobado.

*Articulo 14.–* Obligaciones del beneficiario.

Los beneficiarios de las ayudas reguladas en el presente Decreto deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la ayuda concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención las personas/entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

*Articulo 15.–* Condiciones de devolución de la ayuda o préstamo sin interés.

1.– Los beneficiarios de las ayudas deberán proceder a la devolución de la cantidad concedida en el plazo máximo de seis meses a contar desde la aprobación del proyecto de urbanización o desde la obtención de la licencia de obra de edificación, en el caso de no existir tal proyecto. Si no se lleva a cabo la urbanización ni la edificación, en el plazo máximo de 10 años, contados a partir de la suscripción del Convenio.

La devolución citada en el párrafo anterior se podrá realizar bien mediante su ingreso en la Tesorería General del País Vasco o bien en forma de cesión de aprovechamientos urbanísticos.

2.– En el caso de optar por este segundo supuesto los beneficiarios de las ayudas podrán optar entre la cesión de aprovechamientos en el mismo ámbito en que se ha actuado o en otro distinto. Para este segundo caso será necesaria la autorización expresa del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente. En ambos casos se formalizará un documento en el que se regulen las condiciones de dicha cesión.

3.– El planeamiento pormenorizado de desarrollo del ámbito en el que se emplazan las instalaciones objeto de demolición, deberá de recoger en su estudio económico-financiero el importe de las ayudas concedidas por el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente como coste imputable al ámbito, coste que deberá ser trasladado a los Proyectos de reparcelación y/o urbanización.

*16. atala.–* Eraispena Administrazioak izapidatzen dueneko kasua.

1.– Aurkeztutako eskaeraren batean edo batzuetan 9. atalean aurreikusitako zirkunstantzia guztiak biltzen direnean, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak aukera egin ahal izango du, onuradun titularra pribatua baldin bada, eskatzaileari laguntza ematearen eta Proiektua idazteko eta/edo eraispen-obrak burutzeko lanen kontratazioa bere kabuz egitearen artean, eta lan horiek ordansarien minuta eta/edo obra-ziurtapen egokiak aurkeztutakoan ordainduko dira.

2.– Kasu honetan ere, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak eta aurri-egoeran dauden instalazioen titular erregistralak Hitzarmena izenpetuko dute, bertan gutxienez ondokoa zehazturik: a) Sail honek konpromezupean hartzen duen gehienezko zenbatekoa; b) proiektua idazteko eta/edo obrak burutzeko gutxi gora-beherako epeak; c) Eusko Jaurlaritzak bere gain hartutako kostua, onuradunak, Dekretu honetako 15. atalean aurreikusitako baldintzen arabera itzultzeko hartzen duen konpromezua.

*17. atala.–* Laguntzarako baldintzen aldaketa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketa orok, beti ere laguntzaren xedea bete dela ulerturik, eta hala dagokionean, eskatzaileak beste edozein erakunde publiko nahiz pribaturen beste laguntzaren bat lortzeak, dirulaguntza emateko Ebazpena aldatzea ekar dezakete. Ondorio horietarako, Lurralde Antolamendurako Zuzendaritzak dagokion Likidazio-Ebazpena emango du, emandako dirulaguntzen zenbatekoak egokituz.

*18. atala.–* Baldintzak ez betetzea.

Kasuren batean, dirulaguntza ematea arrazoitu zuten baldintzak bete ez direla egiaztatzen baldin bada, jasotako diru-kopuruak eta dagozkien legezko interesak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko obligazioa sortuko da, eta itzulketa hori 1/1997 Dekretu Legegileaz onetsitako Euskal Herriko Ogasun Orokorra Ordenatzeko Printzipioen Legearen Testu Bateratuaren eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera eta bertan ezarritako baldintzetan egin beharko da.

*19. atala.–* Baliabideak.

Dekretu honetatik ondoriotutako ekintza guztiei aurka egin ahal izango zaie, Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako epeen barruan eta bertan adierazitako bideetatik.

*Artículo 16.–* Supuesto de tramitación del derribo por parte de la Administración.

1.– Cuando en alguna o algunas de las solicitudes presentadas concurran todas las circunstancias previstas en el artículo 9, el Departamento de Ordenación, Vivienda y Medio Ambiente podrá optar, en el supuesto de que el titular beneficiario sea privado, entre conceder la ayuda al solicitante o reservarse la posibilidad de realizar la contratación de los trabajos de redacción del Proyecto y/o ejecución de las obras de demolición que se abonarán previa presentación de la minuta de honorarios y/o certificaciones de obra correspondientes.

2.– También en este supuesto, el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente y el titular registral de las instalaciones ruinosas suscribirán un Convenio en el que deberán constar como mínimo los siguientes extremos: a) importe máximo al que se compromete este Departamento; b) los plazos aproximados de redacción de proyecto y/o ejecución de las obras; c) la obligación de reembolso por parte del beneficiario de los costos asumidos por el Gobierno Vasco, de conformidad con lo previsto a este efecto en el articulo 15 de este Decreto.

*Artículo 17.–* Alteración de las condiciones de la ayuda.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, y en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de las ayudas. A estos efectos, por la Dirección de Ordenación del Territorio se dictará la oportuna Resolución de Liquidación, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

*Artículo 18.–* Incumplimientos.

La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento de las condiciones que motivaron la concesión de la subvención dará lugar, de conformidad y en los términos establecidos en el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobada por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, a la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

*Artículo 19.–* Recursos.

Cuantos actos se deriven de este Decreto podrán ser impugnados por los interesados en el plazo y forma establecidos por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Dekretu honetako hamabosgarren atala, laguntza edo interesik gabeko mailegua itzultzeko baldintzak ezartzen dituena, indarrean dauden hitzarmenei aplikatzekoa izango da, hau da, 1993ko ekainaren 19az geroztik eta Dekretu hau indarrean sartu aurretik izenpetutakoei.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabeturik geratzen dira «industri aurriak» eraisteko proiektuak idazteko eta/edo burutzeko laguntzak arautzen dituen ekainaren 20ko 314/1995 Dekretua, honen aldaketa ezartzen duen otsailaren 25eko 41/1997 Dekretua eta eraispen-proiektuak idazteko eta/edo burutzeko laguntzen gaietan honako Dekretu honen aurkakoa den beste edozein xedapen.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.*– Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuari esku ematen zaio dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

*Bigarrena.*– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

*Hirugarrena.*– Arau honen aurka Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoa tartejarri ahal izango da Euskal Herriko Justizi Auzitegi Gorenaren aurrean, argitara ematen denetik hasi eta bi hilabeteko epearen barruan.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko apirilaren 21ean.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza
eta Ingurugiro sailburua,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA ÚNICA

El artículo quince del presente Decreto relativo a las condiciones de devolución de la ayuda o préstamo sin interés será aplicable a los convenios vigentes, suscritos a partir del 19 de junio de 1993 y con anterioridad a la entrada en vigor de este Decreto.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA ÚNICA

Quedan derogados los Decretos 314/1995, de 20 de junio, por el que se regulan las ayudas para la redacción y/o ejecución de los proyectos de demolición de «ruinas industriales», el Decreto 41/1997 de 25 de febrero de modificación del anterior y cualquier otra disposición en materia de ayudas para la redacción y/o ejecución de los proyectos de demolición que se oponga a este Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente para dictar las disposiciones de desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Tercera.*– Contra la presente norma podrá interponerse Recurso Contencioso-Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde su publicación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de abril de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Ordenación del Territorio,
Vivienda y Medio Ambiente,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.